

klerikalik ezer dakianak, ondo ezagutzen jok bion artean zer burruka egon dan eta dagoen. Ni, orain, *laikoa* nok; hi, berriz, urte beteren barruan ondo demostratu doan bezala, *seglarra* (ikus batez ere Z. A., 486. zenb.). Kontuz, ez nahastu hitzok. Nork eta zeren konplejoak?

4. «Berak nahi lukeen editorialaren alde» (artikulu determinatuarekin), dinok nigatik. Eta ez deuat permititzen publiko egin gabeko ene intentzioarekin sartzerik, zeren eta «de internis neque Ecclesia», Eliza ama santisimak irakasten eta esijitzen dauan bezala.

## Amatiñoren lau kaleak <sup>HUTS</sup>

Amatiño jauna, lau kale\* egin dituk ZERUKO ARGIAren 500. alean.

1. «Kasualidadea eta kasualidadea». Nik kasualidadea eta kasualidadea esaten najoan. Antzerakoak dituk hitz biok; baina batetik bestera, egunetik gauera dagoen ainako\* diferentzia jagok. Ezberdintasun garrantzitsu hori ondo bereizten, filosofian ikasten dok. Hala irakasten joek batxileratuan ere. Eta, azkenez, hala ikasten jok, bere kabutan\* ezer ikasi nahi dauan edozein gizonnek. Horrenbeste ez bereiztekotan, hobe, bai, «cognac kopak edaten» jarraitzea (ikus Z. A., 463 eta 458. zenb.).

2. «Ley de prensa e imprenta» dalakoak dinoan bezala, aldizkari baten zuzendaria dok bertan agertzen direnen arduradun eta errespontsable. Zenbait «lege positiborik» ikasteko gogorik badago, irakur dinodan lege hori.

3. Ni ez nok jesuita izan, apaiza baino. Hareek *regularrak* dituk; bigarrenak, berriz, *sekularrak*. Historia